



Lezoko Unibertsitateko Udala

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAKO LAN POLTSA SORTZEKO HAUTA PROBETARAKO OINARRIAK

OINARRIAK

Lehena: Deialdiaren helburua eta arau orokorrak.

Deialdi honen xedea da etxez etxeko laguntzaileen lan poltsa sortzeko behar diren langileak hautatzea, Lezoko Udaleko 8. nibeleda, D sailkapen Taldearen barruan eta nahitaezko 2. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila erakutsita.

Hautatutako langileekin, etxez etxeko Zerbitzuan egon daitezkeen langileen ordezkapenak eta zerbitzuaren beharrak (ohikoak edo ezohikoak) bete nahi dira.

Sortuko den lan poltsak ez du txandakako izaerarik izango, eta Udalean indarrean dagoen aurreko lan poltsa bertan behera geldituko da.

Oposizio lehiaketa bidez aukeratuko dira langileak.

Bigarrena: Hautagaien betebeharrak.

Onartua izateko eta, hala badagokio, probetan parte hartu ahal izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) 16 urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaez erretiratzeko adina ez gainditzea, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.
- b) Eskola Ziurtagiria izatea.
- c) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko dioten gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea.
- d) Ezgaitasun edo bateraezintasuneko inolako egoeratan ez egotea, eta edozein Herri Administrazioetik diziplina espediente bitartez baztertuta ez egotea, nahitaezko soldadutza egin nahi ez izateagatik funtzio publikoak betetzeko ezgaituta dagoenean eta Udalbatzak delitu politikoaren ondorioztat jotzen dituen beste kasu batzuetan izan ezik.
- e) 2. Hizkuntza Eskakizunaren ziurtagiria izatea edo euskararen ezagutza maila ziurtatzeko egingo diren probak gainditzea.

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, hautagaiak Bigarren Oinarrian zehaztutako baldintza guztiak bete beharko ditu, eta langileak kontratua izenpetuko den egunera arte baldintza horiei eutsi beharko die. c) betebeharra mediku ziurtagiri bidez egiaztatuko da lehen kontratua egin aurretik.

Hirugarrena: Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak bat etorriko dira eredu ofizial eta normalizatuarekin (I. Eranskina). Eredu hori doan eskuratu ahal izango da Lezoko Udal Informazio Bulegoan eta baita udal web orrian (www.lezo.net) ere.

Probetan onartua izateko eskabideak alkatearen izenean bidali beharko dira, eta ondorengo baldintzak bete beharko dituzte baztertuak ez izateko:



Lezoko Unibertsitateko Udala

a) Eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, etxez etxeko laguntzarako lan poltsa osatzeko eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiak.

b) Eskatzen den euskararen ezagutza maila duela egiaztatzen duen agiria, Seigarren Oinarrian finkatzen diren moduetako baten bidez, euskara proba egitetik salbuestarren.

Eskabideak Udal honetako Informazio Bulegoan aurkeztu beharko dira behar bezala beteta, 8:00tatik 13:30era bitartean, edo Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Araubide Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4. artikuluan ezartzen den eran. Horrez gain, dagokion enplegatu publikoak data eta zigilua jarri beharko die eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Nortasun Agiriaren fotokopia
- Eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua
- Euskaraz eskakizuna egiaztatzen duen agiria, hori daukanak.
- lehiaketa faserako alegatu dituen merituak dituela egiaztatzen dituzten agiriak, hori daukanak.

Lan esperientzia egiaztatzeko, enpresaren edo dagokion administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan, kontratuaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta egindako zereginak adieraziko dira. Lan esperientzia egiaztatzeko, Gizarte Segurantzari egindako kotizazioen egiaztatzea (Gizarte Segurantzak egindako lan bizitzari buruzko ziurtagiria) ere aurkeztu beharko da.

Eskabidean Lezoko Unibertsitateko Udalean lan egin duela adierazi badu, ez da beharrezkoa izango lan eskarmentua egiaztatzea, eta espedienteko datuen arabera baloratuko da esperientzia hori.

Heziketa osagarria titulazioaren fotokopia konpultsatuen bidez egiaztatu beharko da.

Eskabideak aurkezteko epea 2014ko azaroaren 12an hasi eta azaroaren 21an amaitzen da.

Laugarrena: Izangaiak onartzea.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Alkate-Lehendakariak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du eta baita Epaimahai Kalifikatzailea osatuko duten kideen izendapena ere. Zerrenda eta izendapenak Lezoko Udaletxeko Iragarki Taulan eta web orrian (www.lezo.net) argitaratuko dira azaroaren 24an, eta lanegun bateko epea emango da erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamaziorik ez baldin badago, behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat joko da automatikoki. Erreklamaziorik balego, ordea, behin betiko zerrenda onartzeko emango den beste ebazpen baten bidez onartu edo baztertuko dira. Behin betiko zerrenda Iragarki Taulan argitaratuko da azaroaren 26ean.

Behin behineko zerrendarekin batera, oposizio fasearen lehen azterketa egiteko eguna, ordua eta tokia emango da argitara. Ondorengo azterketak, nahiz, Epai Mahai Kalifikatzailearen





Lezoko Unibertsitateko Udala

jakinarazpenak eta oharra Udaletxeko iragarki taulan jarriko dira.

Bosgarrena: Epaimahai Kalifikatzailea.

Alkate-Lehendakariak ebazpena emango du eta Epaimahai kalifikatzailearen kideak izendatuko ditu. Epaimahaia mahaiburu batek, idazkari batek eta bokalek osatuko dute eta hautaprobak kalifikatuko dituzte.

Epaimahaiaren kideak ezeztatuak izan daitezke Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Araubide Juridikoaren Legearen 28. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira edo deialdi hau argitaratu aurreko bost urteetan hautagaiak hautaprobetarako prestatzeko lanetan aritu badira.

Deialdia egin ondoren, Epaimahaiak osatuko dira, mahaikideen gehiengoa bertan izanda. Batzar horretan, Epaimahaiak hautaprobak behar bezala egiteko beharrezkoak diren erabaki guztiak adostuko dituzte.

Behin osatuta, Epaimahaiak ez du jarduterik izango mahaikideen gehiengoa bertan ez badago.

Epaimahai kalifikatzaileak argituko ditu arau hauek aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak, eta aurreikusten ez diren kasuetan nola jokatu behar den azalduko du.

Epaimahaiaren jarduteko modua bat etorriko da uneoro Herri Administrazio eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Araubide Juridikoaren Legeak ezarritakoarekin.

Epaimahaiak adituen aholkua eskatu ahal izango du egoki iruditzen zaizkion probetan. Nolanahi ere, aditu horiek beren espezialitate teknikoetan laguntza ematera mugatuko dira.

Seigarrena: euskararen ezagutza maila egiaztatzea.

Euskararen ezagutza maila baloratzeko probak egingo dira. Gai edo ez gai kalifikatuko dira.

Proba horiek egitetik salbuetsiak geratzen dira eskatutako hizkuntza eskakizuna edo goragokoa daukatela egiaztatzen duten izangaiak. Horretarako, Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratura egokitzeko Dekretua aldatzen duen otsailaren 24ko 64/2008 Dekretuan ezarritako edozein modu balia dezakete. Konbalidatuak geratzen dira bertan aipatzen diren euskarako ziurtagiri eta tituluak.

Zazpigarrena: Oposizioa.

Proba praktikoa

Batetik, Epaimahaiak prestatu duen kasu praktiko baten garapena egin beharko da. Proba hau 40 puntu arte baloratuko da eta gainditzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gaindu ahal izateko.

Bestetik, kasu praktiko bati buruzko galderak erantzun beharko dira elkarrizketa batean. Proba hau 40 puntu arte baloratuko da eta gainditzeko gutxienez 20 puntu lortu beharko dira gaindu ahal izateko





Lezoko Unibertsitateko Udala

BI proba hauek 0-80 (40 puntu proba bakoitzak) bitarteko puntuazioz kalifikatuko da, eta gutxienez 40 puntu lortu beharko dira gainditzeko.

Zortzigarrena: Lehiaketa.

Merezimendu hauek baloratuko dira:

Eskarmentua: 12 puntu guztira.

- Etxez etxeko laguntza zerbitzuan kontratuarekin, enpresa pribatuan zein administrazioan, lan egin izana. 0,25 puntu hileko, gehienez ere bi urte.
- Adineko pertsona ezinduak zuzenean zaintzen kontratuarekin lan egin izana (egoitzetan, eguneko zentroetan,...) 0,25 puntu hileko, gehienez ere bi urte.

Trebakuntza: 8 puntu guztira.

- Klinikako laguntzaile titulazioa, 2 puntu.
- Geriatriako laguntzaile gisa, 2 puntu.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arretan Erdi Mailako ikasketak. 4 puntu.

Bederatzigarrena: Epaimahaiaren proposamena.

Ariketen kalifikazioa buruturik eta alegatutako merituak baloraturik, Epaimahaiak argitara emango du ariketa kanporatzaileak gainditu dituzten hautagaien zerrenda, azken puntuazio-ordenaren arabera. Epaimahai kalifikatzaileak, Udaletxeko Iragarki Taulan argitaratuko du, onartutakoen zerrenda, eta bi laneguneko epea emango du erreklamazioak aurkezteko, horiek Epaimahaiak erabakiko dituelarik. Prozedura buruturik, alkateak emango duen ebazpenaren bidez onarturik geratuko da etxez etxeko lan-poltsa osagarriko behin-betiko zerrenda.

Hamargarrena: Gorabeherak.

Epaimahai Kalifikatzaileak ahalmen osoa izango du sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta, Oinarri hauetan eta horren ordeztatik aplikagarri den legerian aurreikusten ez diren gorabeheretan, Oposizioa ongi bideratzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko.

Hamaikagarrena: Inpugnazioak.

Interesatuak, deialdiaren, bere oinarrien eta deialdiak berak zein epaimahaiaren jardunak eragin ditzakeen administrazio ekintzen aurka jo dezakete, azaroaren 26ko Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak eta Lege hori aldatzen duen 4/99 Legean finkatutako epe eta moduetan.

Lezon, 2014-10-27.

